

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua aurrera eramateko zenbait baliabide ezinbestekoak izango dira. Alde batetik, baliabide fisikoak daude: txamarrak, furgoneta eta lokala.

Beste alde batetik, baliabide intelektualak eta giza baliabideak daude: garrantzitsua izango da aurretik dugun esperientzia, gure negozioa aurrera joatea ahalbidetuko diguten kontaktuak edukitzea eta bakoitzak ditugun abileziak; Itsasoren materialak gestionatzeko eta antolatuta mantentzeko abilezia, edozer apurtzen bada horren berri eman, txamarrak falta direnean jakinarazi... Nahia Egañaren publizitatea egiteko eta bezeroekin harremanak mantentzeko abilezia. Nahia Urdalletaren webak diseinatzeko eta hornitzaileekin harremanetan jartzeko abilezia, txamarrak falta badira gehiago eskatu beharko lituzke eta Noraren diru kontuak gestionatzeko abilezia.

Azkenik, finantza-baliabideak ere beharrezkoak izango dira, hasieran, txamarrak mailegu baten bidez ordainduko ditugu. La Caixan eskatuko dugu 3.000 euroko mikrokreditu bat, 6 urtetan itzultzeko epearekin. Etekinak eduki ahala, aurretik eginiko inbertsioa ordaintzeko dirua izango dugu.